

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1652

*116/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 21ekoa, Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Osakidetzako Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko Oftalmologiako zerbitzuburu sanitarioaren lanpostua lehiaketa bidez betetzeko.*

Bilbao-Basurtoko ESIan hutsik geratuko da Oftalmologiako zerbitzuburu sanitarioaren lanpostua. Hori dela eta, Zuzendaritza Gerentzia honek erabaki du lanpostua lehiaketa bidez betetzeko deialdi publikoa argitaratzea, arau hauetan ezartzen denari jarraiturik: Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko Hirugarren Arau Komuna; zerbitzuburu eta atalburu medikoen lanpostuak betetzeari buruzko Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1/2016 Jarraibidea; Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua. Hauek dira oinarriak.

#### OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Lotura finkoko langilea izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, edo estatutupeko langile finkoa izatea Osasun Sistema Nazionaleko Erakunde Sanitarioetan; eta jarduneko zerbitzuan egotea edo eskainitako lanpostuaren lanbide-talde berari dagokion kategoria bateko lanpostua erreserbatzea dakarren beste administrazio-egoera batean egotea.

b) Deitutako lanpostuari dagozkion titulazioa eta espezialitatea edukitzea.

c) Gutxienez, 4 urteko lan-esperientzia izatea fakultatibo espezialista mediko gisa Oftalmologian.

2.– Deialdia argitaratzea.

Ebazpen hau osorik argitaratu beharko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), Estatuko Buletin Ofizialean (BOE) eta Osakidetzaren webgunean.

3.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetzako Bilbao-Basurtoko ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali behar dituzte eskabideak (Montevideo etorbidea 18, Bilbo), hamabost egun balioduneko epean, ebazpen hau dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken egunaren biharamunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek beren datu pertsonal guztiekin bidali behar dute eskabidea, curriculum vitae dokumentuarekin batera, Osakidetzako Bilbao-Basurtoko ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara (Montevideo etorbidea 18, Bilbo). Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada-gokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Eskatutako titulazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Deialdia EHAAan argitaratu arte emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiri eguneratua, dago-kion kategoria adierazita.
- e) Bete nahi den Zerbitzua Kudeatzeko Memoria-Proiektua.
- f) Merezimendu baloragarri guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

#### 4.– Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbao-Basurtoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, ebazpen horren bidez, zerrenda Osakidetzaren webgunean eta Bilbao-Basurtoko ESiko intranetean argitaratzeko agindua emango du, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den azken egunaren biharamunetik hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko. Baztertu izanaren arrazoia zuzen dai-tekeen akatsa bada, aipatutako behin-behineko zerrenda horren argitalpenarekin interesdunei eskatuko zaie, hamar egun baliodunen epean, ikusitako akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak bidaltzeko, eta, jakinaraziko zaie, horrela egin ezean, prozesutik kanpo geldituko direla behin betiko.

#### 5.– Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

Erreklamazioak egiteko edota akatsak zuzentzeko epea amaituta, Bilbao-Basurtoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpen bidez argitaratuko du onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda Osakidetzaren webgunean eta Bilbao-Basurtoko ESiko intranetean.

Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko diote Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpen hori webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### 6.– Balorazio Batzordea.

Bilbao-Basurtoko ESiko zuzendari gerentearen ebazpen bidez, Balorazio Batzordea eratuko da, eta zuzendari medikoa izango da batzordeburu. Hauek izango dira batzordekide: zuzendariorde medikoa, Pertsonaleko zuzendaria (idazkari-funtzioak ere beteko ditu, ahots eta botoarekin) eta beste hiru kide (horietako bat, IVAPek izendatua). Azken hiru horiek zenbait baldintza bete beharko dituzte: batetik, hautagaiei eskatutako titulazioa eta espezialitatea izan beharko dituzte; bestetik, estatutupeko langile finkoak, karrerako funtzionarioak edo lan-kontratudun finkoak izan beharko dira, eta, hirugarrenik, deitutako lanpostuaren hierarkia-maila bera edo handiagoa duen lanpostu funtzional bat izan beharko dute.

Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratuko da, eta interesdunek gora jotzeko errekursoa jarri ahalko diote haren aurka Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Balorazio Batzordeko kide guztiak, nork bere izenean parte hartuko dutenak, independenteak izango dira funtzionamenduan, eta diskrezionalitate teknikoaren babesean jardungo dute, betiere zuzenbidearekiko mendekotasunari kalterik egin gabe.

Balorazio Batzordearen osaerak emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioari erantzungo dio, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, egoerek hala ahalbidetuz gero. Ordezkapen orekatutzat joko da sexu bakoitza ehuneko berrogeian ordezkatuta dagoenean, gutxienez.

Batzordeko kideak abstenitu egin beharko dira baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren gaineko urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. artikuluan jasotako kasuren batean badaude; eta deialdia egin duen agintaritzari horren berri eman beharko diote. Kasu horietan direla kausa, interesdunek errekusazioa abiaraz dezakete edozein unetan, aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, Balorazio Batzordeak bere jarduna egokitu beharko du aipatutako 40/2015. Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutako arauen arabera.

Batzordekide guztiak ahots eta botoa izango dute, eta erabakiak boto-gehiengoz hartuko eta aktan jasoko dira.

Batzordeak erabateko autonomia funtzionala izango du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du, eta objektibotasuna bermatzeaz arduratuko da. Halaber, deialdiaren oinarriak aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu, eta horietan aurreikusi ez diren kasuetan zein irizpide erabili behar den erabakiko du. Gainera, hautagaiak ebaluatu aurretik, aktan jaso beharko dira ebaluazioko irizpide espezifikoak, oinarriari eta haietan jasotako merezimendu-baremoari jarraikiz.

#### 7.– Hautagaiei deitzea.

Proiektuaren defentsa publikoa egiteko, gutxienez 10 egun aurretik deituko zaie hautagaiei. Deialdian adierazi beharko da bakoitzak zein tokitan, egunetan eta ordutan egin beharko duen defentsa, eta, horri buruzko iragarki bat argitaratuko da Osakidetzaren webgunean.

Balorazio Batzordeak proiektuen defentsa publikoaren aurretik egiaztatu beharko du izan-gaiek bete beharreko baldintzak betetzen dituztela, eta ez dagoela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasotako abstentzio- eta errekusazio-arrazoirik.

Ondoren, hautagai bakoitzari deituko zaio, proiektuaren azalpena eta defentsa egin ditzan. Horren ostean, elkarrizketa bat egingo zaio, eta, horren bidez, Balorazio Batzordeko kideek galderak egingo dizkiote proiektuan jasotako alderdien inguruan, gehiago argitzeko edo gaian sakontzeko. Proiektuaren azalpena eta defentsa, baita elkarrizketa ere, publikoak izango dira.

Hautagaien azalpen publikoa amaitu ondoren, Balorazio Batzordeak hautagai bakoitza puntuatuko du, deialdiaren oinarrietan xedatutakoaren arabera.

#### 8.– Merezimenduen balorazioa.

Balorazio Batzordeak hautagai bakoitzaren merezimenduen balorazioa eta puntuazioa egingo du, deialdiaren oinarrietan xedatutakoaren arabera.

Ezingo dira baloratu, inolaz ere, ebazpen hau EHAA n argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta ziurtatu ez direnak ere.

Ondoko eranskinean, hautaketa-prozesu honi aplikatu beharreko merezimendu-baremoa jasotzen da. Gehieneko puntuazioa 66 puntu dira, eta honela banatzen dira:

- Proiektua eta defentsa (gehienez, 30 puntu).
- Merezimenduen balorazioa (gehienez, 30 puntu).
- Euskararen ezagutza (gehienez, 6 puntu).

Prozedura bi fasetan egingo da:

a) Proiektuaren banakako aurkezpena eta jendaurreko elkarrizketa. Izangai bakoitzari deialdiaren oinarrien arabera puntuazioa emango zaio.

b) Merezimenduen balorazioa, deialdiaren oinarrien arabera, banakako balorazio eta puntuazioarekin.

Lanpostuaz jabetu ahal izateko, beharrezkoa izango da prozesu osoan 33 puntu lortzea gutxienez, eta proiektuaren balorazioan eta haren defentsan 15 puntu gutxienez.

#### 9.– Prozeduraren ebazpena.

9.1.– Hautagaiek aurkeztutako proiektuak eta curriculum-merezimenduak ebaluatzeko fasea amaituta, Balorazio Batzordeak izendapen-proposamena egingo dio BILBO-BASURTUKO ESiko Gerentzia Zuzendaritzari, puntuazio handiena lortu duen hautagaiaren alde, eta xehe adieraziko dituzte baremoaren epigrafe bakoitzean hautagaiek lortutako puntuazioak. Ez badago deialdian zehaztutako eskakizunak betetzen dituen hautagairik, edo inork ez badu lortzeko eskatutako gutxienerako puntuazioa, deialdia hutsik uztea proposatuko du Balorazio Batzordeak. Proposamen hori Osakidetzaren webgunean argitaratuko da.

9.2.– Zuzendari gerenteak, egindako proposamena ikusita, ebazpena emango du proposatutako hautagaia deitutako lanpostua bete dezan izendatzeko, edo hutsik utziko du. Azkeneko kasu horretan, arrazoia adierazi beharko du. Arrazoia hauetako bat izan beharko da: a) ez da hautagairik aurkeztu, b) ez dago aurkeztutako hautagaien artean deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituenik, c) ez dago eskatutako gutxienerako puntuazioa lortu duen hautagairik. Aurreko a) atalaren kasuan, Gerentzia Zuzendaritzak deialdia hutsik utz dezake, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartu ondoren, izapide gehiagorik gabe.

9.3.– Izendapenaren Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzaren webgunean argitaratuko da. Ebazpenaren aurka, gorako errekurtsioa jarri ahalko zaio Ente Publikoko Zuzendaritza Nagusiarri.

#### 10.– Esleipenaren ondorioak.

Zerbitzuburuaren lanpostuak lau urteko aldi baterako izendapena izango du, eta epe hori luzatu egin daiteke (EHAA 138. zk. uztailaren 21) Euskadiko Ordenamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan, Hirugarren Arauan, ezarritakoaren arabera.

Langileak berak utziko du betetzen duen lanpostua izendapenaren epea betetzen denean, luzapen-egoeraren bat gertatu ezean. Lehen aipaturiko 8/1997 Legeak jasotzen duenaren arabera, ezarritako kide anitzeko organoaren ebaluazio-prozeduraren arabera egingo da luzapena.

Halaber, izendatutakoa lekuz aldatu ahal izango da epea amaitu baino lehen, aurrez kontraesaneke espediente eginda, eta 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. atalean (Hirugarren Araua) leku aldatzeak egiteko aurreikusitakoa kontuan hartuta.

Kargu-uzte arruntak edo lanpostutik mugiarazteak beste lanpostu baterako lekualdatzea eragingo du. Kasu horietan, mantendu egingo dira interesdunak jatorrizko kategorian zeuzkan baldintzak.

11.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan jasotakoaren arabera, Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal da, Osakidetza zuzendari nagusiari zuzendua. Izapide hori egiteko hilabeteko epea egongo da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunaren biharamunetik aurrera.

Bilbao, 2020ko urtarrilaren 21a.

Bilbao-Basurtoko ESIko zuzendari gerentea.

E (ekainaren 20ko 1556/2017 Ebazpena).

Bilbao-Basurtoko ESIko pertsonaleko zuzendaria,  
AMAYA DE ALLENDE ACHALANDABASO.

## ERANSKINA

## MEREZIMENDUEN BAREMOA (GEHIENEZ, 66 PUNTU)

Merezimenduen balorazioak fase hauek izango ditu.

I.– Proiektua eta haren defentsa (gehienez, 30 puntu).

Fase honen oinarria da izangaiak zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko memoria-proiektua azaltzea epaimahai kalifikatzaileari, eta elkarrizketa egitea.

Fase honen puntuazioa bi atal hauetan xehatzen da.

a) Aurkeztutako zerbitzuaren kudeaketako memoria-proiektuaren edukiaren balorazioa (gehienez, 15 puntu).

Kudeaketako memoria-proiektuak, gutxienez, atal hauek garatu beharko ditu.

a.1.– Antolakuntzaren atala eta kudeaketakoa.

Zerbitzuaren organigrama: bertan azaldu beharko dira bai burutzako lanpostuaren bai horri atxikitako beste lanpostuen eginkizunak.

Zerbitzuak erakunde bereko beste zerbitzuekin duen harremana.

Zerbitzuko buruzagitzaren kudeaketa-plana, antolamendu-helburuak definituta, hobekuntzako arloak detektatu eta aztertuta eta horiek lortzeko behar diren neurri egokiak identifikatuta, eta, horrekin batera, esleitutako giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide ekonomikoak efiziaz erabiltzeko konpromisoa edo plana.

a.2.– Asistentzia-atala.

Zerbitzu asistentzialen zorroaren deskribapena.

Adierazle eta helburu asistentzialak ezartzea, horien jarraipena eta ebaluazioa etengabe egiteko sistemarekin batera.

a.3.– Irakaskuntzaren eta Ikerkuntzaren atala.

Zerbitzuan irakaskuntzaren planifikazioa ezartzea.

b) Jendaurreko aurkezpena Balorazio Batzordearen aurrean, eta elkarrizketa, horren ostean (gehienez, 15 puntu).

Proiektuaren jendaurreko azalpena baloratzera koan, proiektua defendatzeko izandako argitasun eta laburtasuna hartuko dira kontuan, baita haren arlo garrantzitsuenak azaltzeko gaitasuna ere.

II.– Merezimenduen balorazioa (gehienez, 30 puntu).

Puntuazioa honela banatuko da.

II.1.– Laneko esperientzia (gehienez, 13 puntu).

Dagokion espezialitatean fakultatibo gisa zerbitzua eman duen hilabete bakoitzeko: 0,050 puntu.

Dagokion espezialitatean atalburu gisa zerbitzua eman duen hilabete bakoitzeko: 0,075 puntu.

Dagokion espezialitatean zerbitzuburu gisa zerbitzua eman duen hilabete bakoitzeko: 0,100 puntu.

Kontuan hartuko dira, laneko esperientzia gisa, Osakidetzako, Gizarte Segurantzako eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan eta edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak, bai eta Europar Batasuneko gainerako estatueta sare publikoko osasun-zerbitzuetan emandakoak ere.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituta egingo da, eta baztertu egingo dira hilabetetik beherako soberakinak. Horretarako, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

II.2.– Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ezagutzaren hedapena (17 puntu, gehienez).

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua bakarrik agertzen denean, 0,1 puntukoa izango da puntuazioa kreditu bakoitzeko.

II.2.1.– Prestakuntza kudeaketa arloan (3 puntu, gehienez).

Osasun-kudeaketari lotutako ikastaro bakoitzeko, iraupenaren arabera:

- 20 eta 30 ordu artean: 0,20 puntu.
- 31 eta 50 ordu artean: 0,30 puntu.
- 51 eta 100 ordu artean: 0,40 puntu.
- 101 eta 200 ordu artean: 0,50 puntu.
- 200 ordutik gora: 1,25 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako eta egiaztatutako ikastaroak balioztatuko dira, baita Osakidetzak edo edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioaren arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofizial bat lortzeko ikasketen plan baten barrukoak ez badira.

II.2.2.– Espezialitateko etengabeko prestakuntza (3 puntu, gehienez):

Dagokion lanpostuaren espezialitateari lotutako ikastaro bakoitzeko, iraupenaren arabera:

- 20 eta 30 ordu artean: 0,20 puntu.
- 31 eta 50 ordu artean: 0,30 puntu.
- 51 eta 100 ordu artean: 0,40 puntu.
- 101 eta 200 ordu artean: 0,50 puntu.
- 200 ordutik gora: 1,25 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako eta egiaztatutako ikastaroak balioztatuko dira, baita Osakidetzak edo edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioaren arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofizial bat lortzeko ikasketen plan baten barrukoak ez badira.

### II.2.3.– Graduondoko prestakuntza (5 puntu, gehienez):

- Doktorea: 3 puntu.
- Cum laude doktorea: 4 puntu.
- Graduondoko masterra: 2 puntu.
- Unibertsitate-aditua edo espezialista: 1 puntu.
- Ikertzeko nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan: 1 puntu.
- Doktoretza-ikastaroak: doktoretza-ikastaroetako bikain edo ohorezko matrikula bakoitzeko (10 ikastaro, gehienez): 0,10 puntu.

Ez dira baloratuko doktore titulua, cum laude doktore titulua, ikertzeko nahikotasuna edo ikasketa aurreratuetako diploma lortzeko balio izan duten programetako doktoretza-ikastaroak.

### II.2.4.– Jarduera zientifikoa (3 puntu, gehienez):

Dagokion espezialitateari lotutako lan zientifikoak argitaratzeagatik, txostenak edo komunikazioak aurkezteagatik eta hitzaldiak edo mahai-inguruak egiteagatik.

- Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,25 puntu.
- Estatuko txosten bakoitzeko: 1 puntu.
- Nazioarteko txosten bakoitzeko: 1,5 puntu.
- Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,15 puntu.
- Estatuko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,60 puntu.
- Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1 puntu.
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,20 puntu.
- Estatuko mahai-inguru bakoitzeko: 0,75 puntu.
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 1,25 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 1 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5 puntu.
- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 1 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5 puntu.
- Tesina bakoitzeko: 1,5 puntu.

### II.2.5.– Irakaskuntzako jarduera (3 puntu, gehienez):

- Medikuntza Fakultateko katedraduna, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 1 puntu.



– Medikuntza Fakultateko irakasle titularra, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,50 puntu.

– Medikuntza Fakultateko irakasle adjuntua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,25 puntu.

– Egoiliarren irakaskuntzarako tutore akreditatua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,50 puntu.

– Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,05 puntu.

III.– Euskararen ezagutza (6 puntu, gehienez).

Osakidetzako Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.